



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2014ko urriaren 30a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Redondo Lertxundi, Angel del Hoyo Bravo, Eugenio Cotado Iturain, Elena Etxeberria Sedano, Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Noemi Ostolaza Arkauz zinegotziak (EAJ) eta Lourdes Salsamendi Goñi zinegotziak (EAJ) adierazi dute ezin zutela etorri; lehena, gaixorik dagoelako, eta bigarrena herritik kanpo dagoelako. Bi zinegotziok, beraz, ez dute bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2014ko ekainaren 25eko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Udal kontu-hartzailletza zerbitzuak emandako txostenaren berri ematea. Txostena aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzkoa da.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 9/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditua transferitzeko modalitatean egin dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 10/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin dago.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Ordenantza Fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2015eko urtarilaren 1etik aurrera izango duena.
- 6.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifak 2015erako.
- 7.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren artean izenpetu beharreko hitzarmena, mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko; eta alkateari ahalmena ematea, egoki bada, hitzarmena sinatzeko.
- 8.- Onartzea, egoki bada, Konstituzio Auzitegiak Kataluniako kontsulta behin-behingo bertan behera uzteko hartutako erabakiari buruzko mozioa.
- 9.- Onartzea, egoki bada, liburu maileguarengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uztea eskatzeko proposamena.
- 10.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, LOMCE lege organikoa Orioko herrian aplikatzeari buruz.
- 11.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako azaroaren 25eko Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruz.
- 12.- Onartzea, egoki bada, Itsas Enara ornitologia elkarteak aurkeztutako mozioa, Motondo eremua ehiza babesleku izendatzeko.
- 13.- Eskariak eta galderak.



Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2014KO EKAINAREN 25EKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2014ko ekainaren 25ean egindako ohiko bilkurako akta.

2.- UDAL KONTU-HARTZAILETZA ZERBITZUAK EMANDAKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA. TXOSTENA AURREKONTU-EGONKORTASUNEO, IRAUNKORTASUN FINANTZARIOKO ETA GASTUAREN ERREGELAKO HELBURUAK BETETZEARI BURUZKOA DA.

Udalbatzarrak udal kontu-hartzailletza zerbitzuak emandako txostenaren berri jasotzen du. Txostena aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuen erregelako helburuak betetzeari buruzkoa da, eta 2014ko ekainaren 25eko udalbatzarrean onartutako kreditu-aldaketak eta gero egin da. Txostenak honako ondorioak jasotzen ditu:

Behin betiko aurrekontuaren espedienteak, 2014/06/25ean onartutako kreditu-aldaketak eta gero, EZ DU BETETZEN aurrekontu-egonkortasunaren helburua, baina BETETZEN DITU 2014rako iraunkortasun finantzarioko helburua eta gastuaren erregela.

Aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzeari buruz, kreditu-aldaketa batzuk finantzatzeko diruzaintzako gerakina erabiltzeak eragindakoa denez, Udala EZ DAGO behartuta plan ekonomiko-finantzarioa onartzera, baina bai gaiaren berri udalbatzarrari ematera.

Kontu-hartzailetak informe espezifikoko bat egin du, eranskin gisa doana; informeak plan ekonomiko-finantzarioa ordezkatzeko du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio informe horren berri. Informe horrek honako hau ondorioztatzen du: alde batetik, epe ertain eta luzeko iraunkortasun finantzarioa, neurri handi batean, UFFFTik sortutako likidazioen araberakoa izango dela; eta, bestetik, Udalak hainbat departamentutatik ematen dituen zerbitzu batzuen gestio ekonomikoaren



araberakoa, zeren eta, gaur egun, zerbitzu horietako batzuk defizitarioak dira eta, gaur gaurkoz, ez dago planteamendu formal bat egoera hori erregularizatzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 9/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 9/2014 espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 57.964 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumen, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko urriaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 9/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago eta 57.964 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAUURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.



Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 10/2014 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 10/2014 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 22.259 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumen, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko urriaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2014ko aurrekontuari dagokion 10/2014 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 22.259 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.



Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2015EKO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2014ko urriaren 23ko Hirigintza, Ingurumen, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzailean diktaminatu da, era honetan:

1.- Proposatzen da EZ IGOTZEA izaera urbanoko eta landa-izaerako ondasun higiezin gaineko zergaren karga-tasa, eta familia ugarientzako hobariei bere horretan eustea; era berean, proposatzen da KENTZEA modu iraunkorrean desokupatuta dauden etxebizitza-erabilerako ondasun higiezin aplikatzen zaien izaera urbanoko ondasun higiezin gaineko zergaren kuota likidoaren %100eko erreborgoa.

2.- Proposatzen da EZ IGOTZEA Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakzioarako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.

3.- Ez da inolako igoerarik proposatzen izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren urteko portzentajetan, eta proposatzen da zerga horren karga-tasa igotzea, %10etik %11ra.

4.- Ez da inolako igoerarik proposatzen trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari aplikagarri zaizkion tarifatan eta bere horretan eusten zaie zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobariei.

5.- Ez da inolako igoerarik proposatzen eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari aplikagarri zaizkion zerga-tasatan.

Indarrean segituko dute zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hoberi guztiek.

6.- Ez da inolako igoerarik proposatzen ondoren zerrendatzen diren tasen tarifatan:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea; bere horretan eusten zaie ezarritako hobariei; okupazioa txabola eta silo bidez ere izan daiteke; bosgarren tarifa bat sortzen da, obra-hondakinak edo materialak biltzeko edukiontzien bidez egindako okupazioetarako.



- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eksklusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.
- Edozein udal bide publikoren hegala-irteera okupatzea.
- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.
- Udal erabilera publikoko lurra okupatzea, mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementuak erabiliz, irabazteko asmoa dagoenean. Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute. 2. tarifa, obra-hondakinak edo materialak biltzeko edukiontziei dagokiena, kendu egiten da tarifa honetatik, beste batera mugitu delako.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute; proposatzen da tarifa bakarra ezartzea (1,74€ metro karratu edo frakzioko eta eguneko edo frakzioko) asteko azokan salmenta ibiltariko postuak instalatzeko, Orion erroldatuen eta ez-erroldatuen artean bereizi gabe.
- Trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatzea, horretarako zehaztutako zonatan eta ezarritako mugekin. Aparkatzeko eranskailu bat erosteko aukera ematen zaie gaur egungo interesatuei eta, horiez gain, Oriko udal kanpinean partzela finkoak okupatzen dituzten bezeroei. Eranskailu horren prezioa, denboraldi osorako, 42€-koa izango da. Laugarren aparkatze-ordutik aurrera, orain arte bezala, hobari progresiboa aplikatuko da, taula honen arabera:

1 h	1,25€
2 h	2,50€
3 h	3,75€
4 h	4,20€
5 h	5,15€
6 h	6,10€
7 h	7,00€
8 h	8,00€
9 h	9,00€
10 h	10,00€



- Bide publikoko lurzoru, lur azpi eta hegalen erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Kutxazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalazio eta funtzionamendua.
- Autotaxien eta errentako gaineko ibilgailuen lizentziak edo baimenak ematea.
- Udal administrazioak edo udal agintariak norbaitek eskatuta ematen dituzten agiriak; proposatzen da kentzea 2. epigrafeko 5. ataleko tarifak (obra-kontratazioak eta udal zerbitzuen espedienteak).
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Estoldako zerbitzua ematea.
- Zaborren eta hiri-hondakin solidoen bilketa zerbitzua ematea; indarrean segituko dute ezarritako hobari guztiek.
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Orioko Eguneko Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea.
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskaketak egitea.
- Udal pilotalekuaren eta Antillako hondartzako kabinen erabilera; proposatzen da tarifa bakarra ezartzea (7€) partikularrek udal pilotalekua argiarekin erabiltzeko, Orion erroldatuen eta ez-erroldatuen artean bereizi gabe.
- Udal kanpinaren erabilera; proposatzen da orain arte tarifak ordaintzeko aplikatu diren hobariak kentzea eta gehienezko epe bat ezartzea (abuztuaren 31, urtero), egonaldi luzeko partzeletako tarifak ordaintzeko.
- Udak kiroldegiko garajeen erabilera.
- Kultur etxeko aretoen erabilera.
- Udaletxeko udalbatzarraren aretoaren erabilera; proposatzen da tarifa bakarra ezartzea (71,40€) udalbatzarraren aretoa erabiltzeko izaera zibileko ekintzetarako: ezkontza zibilak, hileta zibilak edo bestelakoak; proposatzen da kentzea gaur egun egiten den bereizketa, Orion erroldatuen eta ez-erroldatuen artean.



- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera. Erabiltzaileei aplikatzen zaizkien hobariak indarrean segituko dute; horretarako, diru-sarrera osoak kontuan hartuko dira (lan errentak eta kapitala) eta ez bakarrik pentsioaren kopurua.
- Futbol/softbol zelaiaren erabilera; eusten zaio Orion egoitza soziala duten kirol klub eta elkartei aplikatzen zaion exentzioari; proposatzen da 1. tarifa kentzea eta 2. tarifari eustea eta erabiltzaile guztiei aplikatzea, bereizketarik egin gabe Orion erroldatuen eta ez-erroldatuen artean edota kiroldegiko bazkide eta ez-bazkideen artean.
- Iturriaga jauregiko Done Jakue bidearen interpretazio zentroaren erabilera; proposatzen da epigrafe berri bat sortzea, kamiseta eta bestelako oroigarrien salmentarako.
- Udaletxeko teilatupeko gelaren erabilera.
- Teniseko eta squasheko udal pisten erabilera.
- Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-moduluak sartzeari; proposatzen da Udalaren tren turistikoa errentan ematea, gidaririk gabe, eta garraioaren kostuak errentatzailearen kontura direla.
- Udalaren txosnaren erabilera.
- Udalaren oholtzaren erabilera.
- Mendibeltz futbol/softbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera
- Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera

7.- Proposatzen da kentzea establezimenduak irekitzeko lizentziak emateagatik tasaren tarifak, Zerbitzuei buruzko Europako Direktiban ezarritakoa aplikatuz; horren ordez, jardueraren lizentzia emateko tasa aplikatuko da eta Udalak egiaztatu eta ikuskatu egingo du jardueraren eta instalazioen funtzionamendua.

8.- Proposatzen da honako tarifak aplikatzea udal hilerrian zerbitzuak emateagatik eta kontzesioengatik, zerbitzu defizitarioa dela kontuan hartuta:

- Hilobiratze eskubideak, oro har, eta gorpuak hobotik atera eta kanposantuko beste leku batera aldatzeagatik: 70€
- Gorpuak hobotik atera eta beste herri batera aldatzeagatik: 110€
- Gorpuak hobotik ateratzea egoera berezietan: 275€
- Nitxoa adjudikatzea kontzesio administratiboko erregimenpean (10 urte): 900€



- Panteoia adjudikatzea kontzesio administratiboko erregimenpean (50 urte): 6.000€
- Nitxoia adjudikatzearen luzapena kontzesio administratibo erregimenean (5 urte): 400€
- Kolunbarioak adjudikatzea kontzesio administratiboko erregimenpean (10 urte): 265€

9.- Proposatzen da udal tasa berri bat ezartzea, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateagatik; tarifa 125€-koa izango da, urteko eta animaliaiko.

10.- Zerbitzu defizitarioa denez, proposatzen da Musika Eskolako musika-irakaskuntzaren tarifak igotzea, tarifa bakarra aplikatuz, Orion erroldatuen eta ez-erroldatuen artean bereizi gabe, eta honako zehaztasunarekin: bigarren instrumentuaren tarifyan %50 ordaintzea proposatzen da; tarifa 616 eurokoa izango da, ikasleko eta ikasturteko.

11.- Udaleko Kirol batzordeak hala diktaminatuta, proposatzen da udal kiroldegia erabiltzeko tarifak, batzaz beste, %4 igotzea, eta kentzea gaur egun egiten den bereizketa, Orion erroldatuen eta ez-erroldatuen artean.

12.- Udaleko Kirol batzordeak hala diktaminatuta, proposatzen da Arraunetxeko instalazioak erabiltzeko tarifak igotzea, medikuntzari eta kirol-elikadurari dagokionean eta hipoxia aretoaren erabilerari dagokionean.

13.- Udaleko Kirol batzordeak hala diktaminatuta, proposatzen da Arraunetxeko instalazioak erabiltzeko tarifak igotzea, arrauneko ontziak eta antzekoak gordetzeko apalen alokairuari dagokionean.

14.- Proposatzen da Salatxo aretoa erabiltzeko berariazko tasa bat ezartzea. Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

- Egun bakarrean erabiltzeagatik: 20,35€
- Egun bat baino gehiago erabiltzeagatik: 13,85€/eguneko.

Irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dituzte tarifa horiek ordaindu beharko; beraz, tarifa horiek merkataritza-elkarteei, irabazi asmoa duten elkarteei edo pertsona fisikoei aplikatuko zaizkie.

15.- Proposatzen da Gaztelekua erabiltzeko berariazko tasa bat ezartzea. Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

- Egun bakarrean erabiltzeagatik: 20,35€
- Egun bat baino gehiago erabiltzeagatik: 13,85€/eguneko.



Irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dituzte tarifa horiek ordaindu beharko; beraz, tarifa horiek merkataritza-elkarteei, irabazi asmoa duten elkarteei edo pertsona fisikoei aplikatuko zaizkie.

16.- Proposatzen da KTA (Katea) udal eraikina erabiltzeko berariazko tasa bat ezartzea. Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

- Egun bakarrean erabiltzeagatik: 20,35€
- Egun bat baino gehiago erabiltzeagatik: 13,85€/eguneko.
- Beste edozein lokal alokatzeagatik: 0,10€/metro karratuko eta eguneko.

Irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dituzte tarifa horiek ordaindu beharko; beraz, tarifa horiek merkataritza-elkarteei, irabazi asmoa duten elkarteei edo pertsona fisikoei aplikatuko zaizkie.

Nolanahi ere, lokalak erabiltzea doanekoa izango da, bi betebeharrak hauek batera betetzen direnean: jarduera euskaraz egiten denean eta ordainpekoa ez denean.

17.- Proposatzen da kultur etxean liburuak saltzeko berariazko tasa bat ezartzea.

18.- Proposatzen da udal parrillak erabiltzeko berariazko tasa bat ezartzea.

Aplikatu beharreko tarifa hau da: 80€ parrillako eta eguneko.

19.- Udalaren hainbat jabetza alokatzeari buruz, proposatzen da honako irizpideak ezartzea:

- Udal jabetza horien alokairuaren kostuaren %50eko fidantza jarri beharko da, aldez aurretik, alokairua irabazi asmoarekin egiten bada.
- Udal jabetza horiek alokatzeko, 200€-ko fidantza jarri beharko da, aldez aurretik, alokairua doan egiten bada.

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango duela eta, beraz, aldatu egingo duela urriaren 23an egindako Ogasun batzorde informatzailean emandako kontrako botoa, honako arrazoiagatik: batzordearen diktamenak, azkenean, jaso egiten duelako, batetik, ordenantza fiskal gehien eta beren eranskinen tarifen 'izoztea' eta, bestetik, jaso egiten duelako modu iraunkorrean desokupatuta dauden etxebizitza-erabilerako ondasun higiezinak aplikatzen zaien izaera urbanoko Ondasun Higiezinak gainerako Zergaren kuota likidoaren %100eko erretegia kentzeko proposamena.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza, Ingurumen, Ogasun eta Pertsonaleko batzorde informatzaileak 2014ko urriaren 23an emandako diktamena



ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu), Dorronsoro (Bildu), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Redondo (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Cotado (EAJ) eta Etxeberria (EAJ), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduen 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFAK 2015ERAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak proposatu du 2015. urtean ez aldatzea indarrean dauden tarifak

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



EZ IGOTZEA indarrean dauden Urola Kosta eskualdeko auto-taxi zerbitzuaren tarifak, ASOCIACION GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak proposatutakoa aintzakotzat hartuz. Oraingo tarifek, beraz, indarrean segituko dute 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ORIOKO UDALAREN ARTEAN IZENPETU BEHARREKO HITZARMENA, MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA, EGOKI BADA, HITZARMENA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gizarte Ongizateko batzorde informatzaileak 2014ko urriaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orioko Udalaren artean izenpetu beharreko hitzarmena, mendekoen arretarako etxeke laguntza zerbitzua finantzatzeko.

2.- AHALMENA EMATEA alkateari hitzarmen hori sinatzeko, Orioko Udalaren izenean.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KONSTITUZIO AUZITEGIAK KATALUNIAKO KONTSULTA BEHIN-BEHINGOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI BURUZKO MOZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIAKO KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI BURUZKO MOZIOA

2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentuak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botorekin eta aurkako 28rekin. Berresteko ez diren herri-kontsultei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen irailaren 26ko 129/2014 Dekretua (Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta deitzekoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behinekoz bertan behera utz zitzaten.



Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behinekoz bertan behera uztea.

Horregatik guztiagatik, Orioko Udaleko Osoko Bilkurak, hau erabaki du:

ERABAKIA

1.- Orioko Udalak defendatzen du herriek eta pertsonen beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Orioko Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonen adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.

2.- Orioko Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsoarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak baitira.

3.- Orioko Udalak eskatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.

4.- Orioko Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitateari bidaliko dio.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Konstituzio Auzitegiak Kataluniako kontsulta behin-behingo bertan behera uzteko hartutako erabakiari buruzko mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, LIBURU MAILEGUARENGATIK LIBURUTEGI PUBLIKOEK ORDAINDU BEHARREKO KANONA BERTAN BEHERA UZTEA ESKATZEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proposamenak honela dio, hitzez hitz:

LIBURU MAILEGUARENGATIK LIBURUTEGI PUBLIKOEK ORDAINDU BEHARREKO KANONA BERTAN BEHERA UZTEA ESKATZEKO PROPOSAMENA

Uda honetan PPK kultura- eta hezkuntza-munduari eraso dio beste behin, eta beraz beste urrats bat aurrera egin du zerbitzu publikoen aurka abian jarri duen gurutzean.



Joan den abuztuaren 1ean BOEn 624/2014 Errege Dekretua argitaratu zen, uztailaren 18koa, establezimendu publiko jakin batzuetan beren lanak maileguz uzteagatik egileei ordaintzeko eskubidea garatzen duena. Gobernuaren aldebakarreko Dekretu horrek ezin gehiago gutxietsi eta baztertu ditu liburutegietako profesionalen iritzia eta irizpidea, eta ospe handiko zenbait idazle ere haren aurka egiten hasi dira.

Onartutako dekretuaren arabera, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, liburutegi publikoek kanon bat ordaindu beharko diete egile- edo editore-elkarteei zentro bakoitzean maileguz utzitako liburu bakoitzeko edo erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko. Liburutegiek ordaindu beharko dute, beraz, legeen arabera eskaini behar dituzten zerbitzuak eskaintzeagatik, eta horrela liburutegiaren funtsa kolokan jarriko da, baita zerbitzu publiko horren biziraupena bera ere.

Egile-eskubideen elkarrekin beren gain hartuko dute kanonaren kudeaketa osoa, ordaintzeko betebeharra izapidetuz urtean behin kanona egileei helarazteko. Hau da, diru publikoarekin negozio pribatua sustatuko da.

PROPOSAMENA:

- 1.- Uztailaren 18ko 624/2014 Errege Dekretuak ezarritako kanona atzera botatzeko eta bertan behera uzteko eskaera egitea, liburu-maileguaren eta liburutegiaren alorrean legeek ezartzen dituzten betebeharrak urratzen dituelako.*
- 2.- Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera uztea.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA liburu maileguarengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uzteko proposamena, goian jasota dagoen bezalaxe.

10.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, LOMCE LEGE ORGANIKOA ORIOKO HERRIAN APLIKATZEARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



- 1.- Orioko Udalak konpromisoa hartzen du euskal hezkuntza-sistema osotasunean defendatzeko, gai horretan eskumena duten gainerako euskal erakundeekin batera; gure eskumenak zaintzeko konpromisoa hartzen du, horri esker lortu dugulako, gogor saiatuta, Europako kalitate-indize bertsuetara edo handiagoetara iristea.
- 2.- Orioko Udalak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari, Euskadiko autogobernua defendatzen jarrai dezan eta bere esku dauden neurri guztiak har ditzan, LOMCEk euskal hezkuntza-sisteman izan dezakeen eragin negatiboa gutxitzeko.
- 3.- Orioko Udala elkarlanean arituko da Eusko Jaurlaritzarekin, LOMCE saihesteko abian jartzen dituen eginbide guztietan, betiere ikasle eta irakasleen segurtasun juridikoa bermatuz.
- 4.- Orioko Udala urratsak egitearen alde dago, Euskadiko Hezkuntza Legearen inguruan ahalik eta adostasun zabalena lortzeko, bereziki hezkuntza alorrean eta alor sozial eta politikoa.

11.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BIOLENTZIAREN KONTRAKO 2014KO AZAROAREN 25EKO NAZIOARTEKO EGUNAREN OSPAIZUNARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak honela dio, hitzez hitz:

EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO BIOLENTZIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroak 25 dela eta, "Emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako nazioarteko eguna", Euskal Herria Bildutik ezinbestekotzat jotzen dugu esparru politikoan zein herritarren artean eman beharreko adostasuna eta konpromisoa gauzatzea, biolentzia matxistarik gabeko bizitzaren espazio komunak lortu asmoz. Eta helburu honek, bizitza kolektiboaren kudeaketa antolatzen eta kudeatzen diharduen instituzio publiko guztietan lehentasunezkoa behar du izan eguneroko jardunean.

Aurten berriro ere, modu anitzean gauzatutako eta emakume ugariri eragindako biolentzia matxista izan dugu gure artean. Feminizidioa adierazle nabarmenena duen biolentzia matxista hain zuzen ere. Desagertzetik urrundu eta geure jendartearen errotuta dagoen biolentzia matxista honek, aurpegi ugari ditu, tartean eraso fisiko eta sexualak, baina ekonomikoak eta hitzezkoak ere badaudelarik. Aurten orde, eraso ideologiko eta diskurtsibo ugari izan dugu, hainbat iritzi gune, epaile eta ordezkari politikoren aldetik.



Horregatik diogu biolentzia matxistari aurre egiteko, bizitzaren esparru orotan berdintasuneko harremanak oinarri izango dituen jendartearen eraldaketa ezinbestekoa dela.

Eta zentzu honetan diogu, biolentzia ez litzatekeela gauzatu ahalko, baldin eta onartzen eta posible egiten duen jendarteratze mekanismoak egongo ez balira; hainbatetan biolentzia kontziente edo inkontzienteki arrazoituztat, beharrezkotzat edo saihets ezinezkotzat jotzen baita. Eta honela, erlijioak, hizkuntzak, komunikabideak, familiak eta hezkuntzak biolentzia egonkortu dadin, jendarteratze mekanismoen eragile bilakatzen dira.

Horregatik, emakumeok biolentzia matxistarik gabeko bizitza libreak bizi ahal izateko, burutu beharreko lan eta estrategiek ondorengo urratsetan behar dute izan oinarri:

- Biolentzia matxistari aurre egiteko garaian, emakume eta gizonen arteko bazterkeria estrukturalaren kontrako lanketa hartu oinarri.*
- Biolentzia modu anitz eta ugariak bistaratu, biolentzia horiek gauzatzen diren espazio ugariak agerian uztearekin batera.*
- Baztertzailak diren adierazpen eta gauzapek kulturei aurre egin, eta biolentzia matxistaren eragiletzat jo halakotzat hartuak ez baina badiren fenomeno sozio-kultural eta sinbolikoak, hauen bitartez ematen baita gehienetan biolentzia matxistaren legitimazioa.*
- Agerian utzi, prebentzio lana egin eta emango bada aurre egin, beste biolentzia matxista moduei, transfobia, lesbofobia edo homofobiaren modukoei.*
- Biolentzia matxistaren aurrean gizonek duten protagonismoa eta jarrera hartzeak aztertzeraz bultzatu: eraso zer den eta zer ez den identifikatzeko dituzten arazoak, emakumezkoekin eraikitzen dituzten harremanak, balizko jardunbide matxisten aurreko beraien jarrera, edo eraso matxista baten aurrean har lezaketen jarrera pasiboa eraso babestu ez arren.*
- Prebentzioa ezinbesteko elementutzat hartu, berdintasuna oinarri izango duten harremanak sortu eta eraikitzeke garaian, hezkuntza formal eta ez formalean eragin beharko dugularik.*

Honengatik guztiagatik, Orioko Udalak, honako konpromisoak hartzen ditu:

- Berdintasun esparruko politikekiko konpromisoa mantendu eta egonkortu, berdintasun politikak garatzeko behar diren baliabide ekonomiko eta humanoak indartuz.*



- *Udalerrian eman litezkeen ekintza eta jarrera matxisten aurrean, prebentzio eta salaketarako eragile aktibo izan.*
- *Abian jarri, hedatu edo indartu, emakumeen parte hartze ekitatiboa ahalbideratzen dituzten jai edo jardun sinbolikoak, bai eta gainerako espazio sozio-kulturalak ere.*
- *Emakumeen enpoderamendua bultzatzen duten gune komunak sortu edota indartu, behar adina baliabiderekin eta sare lana sustatuz, enpoderamendu eskolak edo emakumeen etxeen modukoak.*
- *Ahulenak diren guneetan biolentzia matxista eman ez dadin, instituzioen arteko elkarlana bultzatu, baliabide tekniko eta ekonomikoen bitartez: gazteak, adinekoak, etorkinak, nekazal gunekoak, aniztasun funtzionala dutenak, etab.*

Azkenik, dei egiten dugu egun honi begira mugimendu feministak antolatu dituen ekimenekin bat egin eta bertan parte hartzera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIA BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA emakumeei zuzendutako biolentziaren kontrako 2014ko azaroaren 25eko ospakizunari buruzko aitorpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

12.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ITSAS ENARA ORNITOLOGIA ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, MOTONDO EREMUA EHIZA BABESLEKU IZENDATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Itsas Enara Ornitologia elkarteak, zeinak G.20411542 CIF zenbakia duen, eskaera egiten du udalarena den Motondoko eremua ehiza babesleku izendatzeko.

Idatzi honekin eskatzen dugu Orioko udalak Motondoko eremua ehiza babesleku izenda dezan eta hala aurkeztu Gipuzkoako Foru Aldundiari, hurrengo arrazoiak aintzat hartuz:

1.- Eremuaren balio ekologikoa.

Motondo eremua Oria Itsasadarra BBEan (babes bereziko eremuan) kokatzen da. Beraz, Natura 2000 sarean aurkitzen da. BBEaren testuak dioten bezala "Eremu honetan EAEko arriskuan dauden animalia eta landarediaren katalogoko hainbat espezie aurkitu daitezke, eta bertan espezie hauen poblazioak garatzeko nahikoa baldintza ematen dira. Euskal kostako beste hainbat estuariok bezala, hegaztien



migrazioan duen papera garrantzitsua da, hainbat espeziek atseden hartzeko eta elikatzeko erabiltzen dutelako, hauen konektibitatean lagunduz. Gainera, funtzio berezia betetzen du neguan Europa iparraldetik datozen hainbat hegazti espezieentzat." Gainera, BBE izendapenean helburuak dira 'Habitatak eta animalia eta landaredia populazioa aktiboki mantentzea eta errepresentagarrienak direnak babestea', baita 'Presio urbanoa eta erabilera rekreatiboa kontrolatzea', ehiza delarik erabilera hauetako adibide bat.

2.- Babestutako espezieak

Motondo eremuan hainbat eta hainbat babestutako espezie agertzen dira. Lertxun hauskara (Ardea cinerea), lertxuntxo txikia (Egretta garzeta), gaueko harrapariak diren hontza zuria (Tyto alba), urubia (Strix aluco) eta eguneko harrapakariak diren mini gorria (Milvus milvus), miru beltza (Milvus migrans), zuhaitz belatza (Falco subbuteo), zapelatz arrunta (Buteo buteo), gabiraia (Accipiter nisus) eta batez ere arrano arrantzalea (Pandion haliaetus), azken hau estuarioari estuki lotutako espeziea, Motondoko zuhaiztia baita espezie honen geroak, bertan atseden hartu eta elikatzen delarik. Antzandobi arrunta (Lanius collurio) bezelako espezie paseiformeak ikus daitezke, egun desagertzeko arriskuan daudenak Europa mailan. Eta batez ere espezie limikolak, egun ornitofaunaren ehizaren eraginpean daudenak.

Motondo limikola haundien atseden gunea da. Kurlinta handia (Nurnenius arquata), txirri grisa (Pluvialis squatarola) eta urru-txirri arrunta (Pluvialis apricaria) mundu mailan babestuta dauden espezieak dira. Hauek ehizak zuzenean kaltetzen ditu. Izan ere, nahiz eta babestutako espezieak izan ehiztarien presentziarekin bertatik alde egiten dute. Horrela, udazkeneko migrazioetan nahiz neguan ezinezkoa dute atseden hartzeko beste lekuri aurkitu marea goran, Gipuzkoan daukagun hezegune eskasia dela eta.

3.- Segurtasuna: oinezkoak, ontziak eta trenak.

Ibaiari paralelo doan bidea oinezko askok erabiltzen dute paseorako nahiz kirola egiteko. Hain distantzia motzean eskopetak erabiltzeak guztiz ekidin beharreko arrisku egoerak eragin ditzake. Oinezkoen segurtasuna bermatu behar da eremu periurbanoan. Oria ibaia kiroletarako erabiltzen den eremua da, ontzien joan etorria haundia delarik. Egunero 60 bat trenak ere zeharkatzen dute eremuaren ertza, bidaiariek beteta.

4.- Ehizaren legea betetzea.

Ehiza egiteko kontutan hartu beharreko segurtasun distantziak Motondon aktibitate hau egiteko aukera gutxi uzten du. EAEko ehizaren legeak 27.6 artikuluan dio:



6.- Orokorrean ezin izango da tirorik bota segurtasun guneen noranzkoan beti ere ehiztaria ez bada gune hauek babesten dituzten elementuetatik gutxienez jaurtigaia iritsiko den distantzia baino urrutiago aurkitzen, edo tarteko terrenoaren konfigurazioak ahalbidetzen badu gune hauek babesten dituzten elementuak jaurtigaiek inoiz ez gainditzea.

Kontutan hartuta perdigoizko kartutxoa jaurtitzen duen eskopetak 150 eta 350 metroko distantzia harrapatu dezakeela (150 metro 10 zenbakiko perdigoiek, 350 metro 1 zenbakiko perdigoiek), ehiztari batek baimendutako perdigoi handiena erabiliko balu, 00 zenbakiko perdigoia, distantzia handiagora iritsiko litzateke.

Atxikita doan diagraman ikus daiteke 1 zenbakiko munizioa tiro horizontalean ibaiaren beste aldeko ertzeraino iritsiko litzatekeela, bidegorria harrapatzeraino.

Argi ikus daiteke beraz ezin dela segurtasunez ehizatu Motondoko eremuan.

Mozio hau babesten duten elkarteak dira:

Itsas Enara Ornitologia Elkarteak CIF :G.20411542

Herrio natur taldea CIF:G20835021

Ugatza Ornitologia elkarteak CIF:G750400048

Zumaiako natur taldea

Eguzki CIF: G48404453

Arkamurka natur taldea CIF G-20739629

Jon Redondo zinegotziak hartzen du hitza eta, EAJren izenean, proposatzen du mozioaren onarpena mahai gainean uztea, bilerak egin arte Herrio Natur Taldearen ordezkariekin eta Orioko ehiztarien elkartearen ordezkariekin, haien iritzia zein den jakiteko eta, ondoren, inplikaturako guztien iritzia entzun eta gero, gaia dagokion batzorde informatzailean eztabaidatu eta diktaminatzeko.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du Itsas Enara ornitologia elkartearen mozioaren helburua dela Udalak gaiari buruz duen iritzia jakitea eta, beraz, herriko elkarte baten ekimenez, gai-zerrendan sartzea erabaki duela, gaia eztabaidatzeko eta dagozkion erabakiak hartzeko.

Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza eta, Orain plataformaren izenean, adierazten du bere talde politikoak berandu jakin duela mozioaren berri, urriaren 24an, eta, beraz, ez duela denborarik izan gaia arretaz aztertzeko. Hala ere, adierazten du iruditzen zaiola mozioa ondo egina eta ondo aurkeztua dagoela.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Solaberrieta (Bildu), Agirresarobe (Bildu), Saizar (Bildu), Lasa (Bildu) eta Dorronsoro (Bildu), guztira **BOST ALDEKO BOTO**. Kontrako botoak: Redondo (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Cotado (EAJ), Etxeberria (EAJ), Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain), guztira **SEI KONTRAKO BOTO**]:

EZ ONARTZEA Itsas Enara ornitologia elkarteak aurkeztutako mozioa, Motondo eremua ehiza babesleku izendatzeko.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga lehen alkateordeak hartzen du hitza, Orain plataformaren izenean, eta honako hau adierazten du: bere talde politikoaren hasierako asmoa zen abstentzio botoa ematea; baina, kontuan hartuta beren abstentzioarekin mozioa inolako eztabaidarik gabe onartuko zela, inplikaturako elkarteekin inolako bilera informatzailerik egin gabe, azkenean erabaki dutela kontrako botoa ematea; era horretara, aukera izango da bilera horiek egiteko, gaia ondo aztertzeko, eta, ondoren, berriro udalbatzarrean planteatzeko, aztertu eta dagozkion erabakiak hartzeko.

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,